

## Donostian, 1998ko urtarrilaren 30ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua  
H. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
X. Diharce,  
X. Kintana,  
F. Krutwig,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
P. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin,  
I. Sarasola,  
J. M. Satrustegi  
A. Urrutia eta L. Villasante euskaltzainak  
eta  
J. L. Lizundia, idazkariorde kudeatzailea

Donostian, Foru Aldundiaren Jauregian 1998ko urtarrilaren 30ean, goizeko hamarrak eta laurdenetan, eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren hileroko batzarrari. Bilduen izenak ezkerreko zutabearen jasoak dira. Ezin etorria adierazi du P. Salaburu jaunak.

### *Aurreko agiria onartzea*

Abenduko bilerako agiriri ez dio inork oharrik egin eta bere horretan onartu da.

### *Euskaltzainburuaren hasierako hitzak*

Lehenbizi, J. Casenave eta J. A. Mujika euskaltzain urgazleek irakurri berri dituzten doktore tesiak aipatu ditu eta Euskaltzaindiaren poza azaldu.

Bestalde, dolumina agertu du Thomas Uthurry, J. M. Azpiroz eta Jesus Oleaga euskaltzain urgazleen eta Karlos Santamaria, euskaltzain ohorezkoaren heriotzarengatik. Hauen hilberri txostenak apirileko bileran irakurriko dira.

## 2. Eskuartekoak

Hizkuntza arauak aztertzen hasi aurretik eskuartekoak mahaigaineratu dira.

2.1. 1997ko bileretara etorritakoen zerrenda aurkeztu da lehenbizi.

2.2. *Senideek* euskal presoen “Euskaraz bizitzeko eta erabiltzeko eskubidearen aldeko manifestua” sinatzeko eskaria egin diote Euskaltzaindiari. Berez, bi testu dira: bata Euskaltzaindiari zuzendua eta bestea euskaltzain bakoitzari. Bigarren testu honetaz euskaltzain bakoitzak jakingo du zer egin. Lehenbizikoa, zuzendaritzak beste testu berri bat egitea proposatzen du erakundearen izenean. Hau dela eta, J. San Martinek testu horretan Euskaltzaindiari dagokion Errege Dekretua aipatu behar dela dio. Charritonek, berriz, dio Euskaltzaindiak ere baduela bere politika. Testu hori Jagon batzordetik pasatu beharko litzatekeela, zeren Iparraldean ere arazoak bai baitira eta Euskaltzaindiak ez du ezer esaten. Euskaltzainburuak hartu du hitza: pasa bedi Jagonetik eta pentsa be-

zate zer esan behar zaien Madrilekoei eta zer Pariskoei. Jagon saila otsailaren 6an bilzen omen denez, egin dezatela.

X. Kintanak eskatu du, egiten dena egiten dela, kopia bat bidal dakiela *Senideei*.

Lehenbizi, hurrengo bileran onartzeko proposamena egin da, baina gero, J. L. Lizundiaren eskariz, Jagonetik pasatu ondoren, testua, behar diren egokitzapenekin, bialtzea onartu da, hurrengo bilerari itxaron gabe.

3. "Euskalerritar unibertsala" delakorako proposamenak egitea eskatu zaio Euskaltzaindiari ere. Eztabaida labor bat izan da "unibertsal" zer datekeen eta abarrez. Nola nahi ere, inoren izenik ez bada ateratzen, ez da egingo proposamenik.

4. Bestalde, Haritschelhar jaunak esan du Euskaltzaindiak euskaltzain ohorezkoen zerrenda osatzeaz pentsatzen hasi behar lukeela. Hausnarketa egin behar litzateke eta proposamenak idatziz helarazi Euskaltzaindira izendapen berriak egin ahal izateko bere garaian.

## 1. Hizkuntza arauak

### 1.1.1. Exonomastikako "Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak" onartzea

Zerrenda onartzeko astirik ez du izan batzordeak. Beraz, hurrengo bilerarako utzi da.

### 1.2.1. Hiztegi Batuko *josi-koala* zerrenda onartzea

Idatziz egindako oharrak aztertzen hasi aurretik, eskari bat egin die Ibon Sarasolak euskaltzainei. Hitz berriak proposatu baino lehen ongi pisatzeko aldeko eta kontrako arrazoiak. Batetik, sarritan denbora galtzea dakar eta, bestetik, desoreka sortzen du zerrendan bertan.

Eztabaidan lehenbiziko txanda *klaustro* hitzarena izan da. Hitz honek izan litzakeen adierak eta erabilera eremuak astindu dira eztabaidan. Azkenean hitz hori zerrendatik kentzea onartu da.

Ondoren A. Urrutiaren oharrak aztertu dira.

*Jubilazio*-ri dagokion oharra onartu da. Horrenbestez, *jubilazio*\* e. *erretiro* sarrera gehituko zaio zerrendari.

*Judizio/juizio* eta abarrez ere luze joan da eztabaida. Azkenean botoetara jo da. Honako hau izan da emaitza: batzordearen proposamenaren alde, 9 boto; kontra, 10; eta abstentzio bat. Horrenbestez, beste proposamen bat egin da: *judizio* jas. 'epaiketa', alde batetik eta *juizio* Heg. 'epaiketa'. Proposamen berri hau euskaltzain guztiek onartu dute.

*Jurisdikzio* eta *jurisprudenzia* hitzak sartzea onartu da. Hala ere, batzordeko ordezkariak aditzera eman dute nahiago litzatekeela horrelako hitzak hiztegi batzordetik pasatu ondoren hirugarren itzulian sartuko balira.

*Justifikatu*-ri buruzko oharra ohargileak berak erretiratu egin du. *Juzgatu* sarrerari buruz egiten den oharra ere ez da onartu.

*Kabiar* hitza sartzea onartu da, bai eta *klausula* ere, baina hurrengo itzulirako utzi dira *kalumnia*, *kanbio*, *kapitalizatu*, *kapitalizazio* eta *klonazio*. Hirugarren itzulirako utzi dira *kausadun*, *kausatzaille*, *kautela* eta *kauzio*.

*Kargu*-ren azpisarrera gisa *kargua utzi* sartzea onartu da. Onartu da, halaber, *kau-dimen* hitza zerrendan sartzea.

*Karrera* hitzean *ikasketak* hobestea ez du bidezko ikusten ohargileak. Ez da oharra onartu. Hala ere, adibide bat erantsiko zaio: 'zuzenbie karrera, h. zuzenbide ikasketak'.

*Kartera* hitzari zerrendan ezarri zaion gaitzespen seinalea kentzeko eskaria ez da onartu.

*Kereilatatu* eta *kereilatzaile* hitzei sarrera ematea ez da onartu, ez eta ere *klabe* hitzari.

Ondoren, zerrendan eztabaidagaitzat markaturiko hitzak hartu dira kontuan. *-(r)en kariaz* eta *-(r)en karietarat* esapideei buruz eztabaida txiki bat izan da eta, azkenean honako hau onartu da: *kariaz* "jas." gisa markatua emango da eta *karietarat* barik *karietara*.

*Karroza* eta *karrosa* hitz pareari buruz ere eztabaida izan da. Azkenean *karroza* bakarrik uztea erabaki da. *Karrosa* hitza, berriz, folklore alorrekoa, bigarren itzulirako utzi da.

*Kastore* ala *kastor* behar ote duen eztabaidatu da ondoren. Botoetara jo da eta honako hau izan da emaitza: *kastore* formaren alde, zazpi boto; *kastor*-en alde, zortzi; eta bost zuri. Errepikatu da bozketa eta emaitza berdina gertatu da: 8 *kastor*-en alde, 7 *kastore*-ren alde eta 5, zuri. Horrenbestez, hitza zerrendatik ateratzea erabaki da eta bigarren itzulirako uztea.

*Katxalote/kaxalote* hautuak ere hizpide eman die euskaltzainei. Batzordeak aurkeztutako zerrendari buruz bi bozketa egin dira. Batetik, /tʰ/ ala /x/ behar duen bozkatu da. /Tʰ/ grafiaren alde, 4 boto izan dira eta /x/ soilaren alde, 12. Beraz, *kaxalote* forma onartu da. Bestalde, zerrendan *zeroi* hitza hobesten bada ere, hobeste hau eztabaidan jarri da. Botoek honako ondorioa eman dute: "h." delako oharra kentzearen aldeko agertu dira zazpi boto eta mantentzearen alde, hiru. Ondorioz, bi hitzak baliokidetzat ematea erabaki da.

*Keheila* hitzari "Zub. *kereta*" oharra erantsiko zaio.

*Kilker* ere eztabaidarako utzia zuen batzordeak. X. Kintanak *kilker* forma nahiago du. Bateko eta besteko arrazoiak entzun ondoren, botoek ebatzi dute kontua: batzordearen proposamenaren alde (hots, *kilker* formaren alde), 9 boto; *kilker* formaren alde, 4; abstenitu direnak, 5. Beraz, *kilker* forma agertuko da zerrendan.

*Kirurgialari* hitzaren inguruan ere eztabaida luzea izan da. Azkenean, zerrendatik ezabatzea onartu da eta bigarren itzulirako uztea.

*Kirofano* hitzari buruz, Sarasolak arratsaldeko saiorako datu batzuk ekarriko dituela agindu du eta geroko utzi da hitz honen inguruko eztabaida.

### 1.2.2. Hiztegi *Batuko koartel-kontsultatu* zerrenda onartzea

Lehenbizi, Kintana jaunaren oharrak aztertzeari ekin diote euskaltzainek.

*Koartel / kuartel* bikotearen aurrean, X. Kintana lehenbizikoaren alde ageri da oharretan. Literaturako datuek, ordea, /*ua*/-ren nagusitasuna erakusten dutela erantzun zaio. Beraz, ez da onartu Kintanaren oharra. Zerrenda, hortaz, bere horretan utzi da, hitz honi dagokionez.

*Kolko* sarreran *kolkoa bete diru* adibidea eranstea onartu du batzordeak. Ondorioz, euskaltzainek ere ontzat eman dute.

*Koltxoidenda* sarreran bi zuzenketa onartu dira: batetik, “e.”-ren ordeaz, “h.” oharra jarriko da, eta bestetik, *koltxoi(-)denda* gisa emango da sarrera.

*Komiki, komiko* hitzak onartu dira.

*Kondaira*-ri buruzko oharra ez da onartu, batzordearen proposamena dagoen-dagoenean uztea erabaki da.

*Kondor* hitzari buruzko oharra, Kintanak berak erretiratu egin du.

*Konfitura = marmelada* emango da, baina ez da *erreximenta* sartuko, *E* letran *marmelada moduko janari* gisa definitu baitzen hitz hori.

*Konpaktu* hitza sartzea onartu da. *Konpaktu = trinko* erantsiko da.

*Konposaketa h. konposizio* proposatu eta onartu da.

*Konpromezu\* e. konpromiso* sarrerari buruz eztabaida luze xamarra izan da, hitzaren adierari buruz batez ere. Azkenean, batzordeak bere proposamenari cutsi dio eta hala onartu da. Bestalde, *konpromiso* hitzak Heg. marka eramango du.

*Kontrako*-ren sarreran *kontrako zulo* ere sartzea eskatzen du ohargileak. Luze eztabaidatu ondoren, azpisarrera hori gehienez ere bigarren itzulirako utz litekeela uste izan dute euskaltzainek. Horretan geratu da, beraz.

(Hemen batzarra eten egin da, ordu biak inguru zirenean, bazkaltzeko. Arratsaldeko saioa lauetan hasi da).

Hiztegi kontuekin jarraitu aurretik, euskaltzainei Leioako Biltzarrean Ahoskera lantaldeak aurkeztutako txostenaren kopia bana eman zaie, osoko bileran erabakiak hartzeko orduan lan hori kontuan izateko.

Ondoren, hitz zerrendari egindako oharren azterketarekin segitu du batzarrak. *Sagaratu kontsakratu* baino hobetzat ematea ez du onartzen Kintanak. Batzordeak bereari eusten dio. Eztabaida luzeari irtenbidea emateko, bozketa egin da. Batzordearen proposamenaren alde, 7 boto; kontra, 2; eta zuri, 8. Beraz, batzordearen proposamena onartu da: *kontsakratu h. sagaratu. Kontsakrazio* hitzean ere gauza bera.

*Kontsulatu* hitza soberan dela uste du Kintanak *kontsuletxe* ageri denez gero. Batzordeak, hala ere, zerrenda bere horretan uztea proposatzen du.

*Kontsulta* hitzaren kasuan onartzen da oharra eta, horrenbestez, hitz hori inolako oharrik gabe emango da. *Kontsulta egin* azpisarrera gehituko zaio, nolnani ere.

Goizeko bileran *kirofano*-ri buruzko informazioa ekarriko duela agindu du Sarasola jaunak. Horren arabera, *operazio sala*, *ebakuntza areto*, *operazio gela* eta *ebakuntza gela* aukerak proposatzen dira. Eztabaidatu ondoren, *operazio gela* eta *ebakuntza gela* hobetsi dira. Horrenbestez, *kirofano*\* e. *operazio gela*, *ebakuntza gela* gisa utziko da dagokion sarrera.

Henrike Knörr-en oharra hartu dira ondoren aztergai.

*Koba* hitzari “Bizk.” oharra gehitzea eskatzen du ohargileak. Gehitxo dirudi Bizkaira mugatzea. Hori baino eremu zabalagoa du. Horrenbestez, “Heg.” oharra gehitzea onartu da. Gauza bera *kobazulo* hitzari ere.

*Kofesatu / konfesatu* hitz parearen ordeaz *aitortu* hitza hobestearen kontrako oharra aztertu da ondoren. Batzordeak bereari eusten dio. Eztabaida apur bat izan da eta, azkenean bozkatu egin da. Batzordearen proposamenaren aldeko botoa 12 euskaltzainek eman dute; kontra, 4-k eta bat abstenitu egin da. Horrenbestez, dagoen-dagoenean utzi da sarrera hau.

Hemen eten da oharren azterketa, bilkura irekiari leku egiteko. Dena den, *kontsumitu-lan* zerrenda banatu zaie euskaltzainei oharra egin ditzaten. Beti bezala, oharrok otsailaren 20a baino lehen egon behar dute batzordearen eskuetan.

Horrenbestez, arratsaldeko bostetan, amaitu da euskaltzain osoen urtarrileko bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## AGERIKO BATZARRA

*Donostian, 1998ko urtarrilaren 30ean*

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1998ko urtarrilaren 30ean, arratsaldeko bostak eta hamarrean eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren bilera irekiari. Honako jaun-andre hauek hartu dute parte: J. Haritschelhar, euskaltzainburuak, H. Knörr, buruordeak, P. Goenaga, idazkariak, J. A. Arana, diruzainak, M. Azkarate, P. Charritton, J. L. Davant, X. Kintana, F. Krutwig, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, J. San Martin, I. Sarasola, J. M. Satrustegi, A. Urrutia eta L. Villasante euskaltzain osoek eta J. A. Aduriz, M. Atxaga, X. Aranburu, P. Etxeberria, J. Garmendia, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, L. Oñederra eta J. R. Zubimendi euskaltzain urgazleek. M.<sup>a</sup> Dolores Agirre zenaren familiartekoak ere aretoan izan dira.